

## EUSKADI LITERATURA SARIA

# EUSKARAZKO LITERATURA

### 2016

#### Epaimahaia

- Jon Kortazar, epaimahaiburua
- Aitzol Lasa, epaimhaikidea
- Yurre Ugarte, epaimahaikidea
- Pello Otxoteko, epaimahaikidea
- Lourdes Otaegi, epaimahaikidea

#### Irabazlea

Irabazlea:	Luis Garde Iriarte
Izenburua:	<i>Ehiztariaren isilaldia</i>
Argitaletxea:	Pamiela

18.000 euroko saria eta 4.000 euro, lan saritua beste hizkuntza batean argitaratzen bada.

#### Epaimahaiak ikusitako merituak

Ezkaba mendiko San Cristobal kartzelan 1938an izandako ihesaren inguruko narrazioa da Luis Garderen *Ehiztariaren isilaldia*. “Gorriak eskapatu egin dira, denak akabatu behar ditugu, kagoendios” esanez abiatu omen ziren reketek eta falangistak iheslarien bila, eta ehiza ankerraren xehetasunak oroituz ekiten dio idazleak ere ahanzturaren aurkako narrazio-saio handi honi. Emaizta liburu aberatsa da, sakona eta gogorra, irakurlearen kontzientzia astintzen duen urruneko sarraski lazgarriaren memoria etiko hurbila.

Egilearen beraren antza duen narrazioa-ikerlearen eskutik helarazten zaigu eta geruza ezberdineko narrazio multipolarraren egitura hartzen du, “collage” aberatsa osatuz, garai, leku, pertsonaia eta gertakari ezberdinen ekarpenez. Batetik, presoen ihesaldiaren gaineko kronika historikoa eskaintzen digu eta fikziozko bi iheslariren ibileren bitartez ezinezko herio-ihesaren larritasunaz bat eginarazten zaio irakurleari. Modu paraleloan, ikerlearen beraren bizipenak erakusten zaizkigu isiltasunaren trinkotasunaren aurkako lehian. Bere peskizen berri ematen digu, dietario baten gisan, eta familia oroimenak eta haur garaiko ibilerak eransten dituelarik, sakontasuna hartzen du memoriaren betebeharrari buruzko hausnarketak. Izan ere, bere ikertzearen harira, egileak memoria historikoari buruzko hausnarketa kritikoa garatuko du, giza ehiza haren biolentzia neurrigabea eta isiltasun luzearen efektu ezabatzailea agerian jarriz, gaizkia bera eta injustizia kontzientzia gabea bihurtzen direlarik liburuaren ardatz nagusia.

Geruza horiek ehuntzeko egileak diskurtso mota barietate zabala baliatu du trebezia; baina goi mailako idazlan batean bururatzen den ildo ezberdinen harilkatze narrazioa ez da kasualitatearen fruitu, zeren isilarazi den memoria eraikitzeko diskurtso doi eta eraginkorraz hausnarketan baitihardu kontalariak liburuan zehar. Izan ere, ihesaldiaren balizko epikaren orde, begirada liriko

gizatiarra hautatu baitu Gardek, aldi berean, begirada etikorik zorrotzenaz fokatu duelarik ehiztari eraiki zirenen bortiztasunaren zioa eta isiltasunaren arrazoiak.

## Luis Garde Iriarte

1961, Iruñea

Filologian lizentziaduna, Donezteben du bizibidea.

Zazpi poema-liburu argitaratu ditu:

- Oihan nabarra (2004, BBK-Euskaltzaindia)
- Haize hegoaren aroak (2007, Pamiela)
- Gertakarien urtzea (2008, Alberdania)
- Unplugged (2009, Kutxa Fundazioa)
- Maizter arrotza (2013, Erein)
- Trenen abiadura (2014, Pamiela)
- Eremuen birkalifikatzea (2014, Pamiela)

## ***Ehiztariaren isilaldia***

Ezkaba, 1938ko maiatzaren 22a.

Preso matxinatu talde batek Iruñea ondoko San Kristobal Gotorlekuko atea ireki ditu. Ihes jendetsua giza ehiza baten hasiera izanen da. Bi iheslari askatasunaren bila dabilta inguruko haranetan barna.

Donemartie, gaur egun.

Hedapen urriko poemen idazle batek Ezkabako ihesaldiari buruzko nobela bat hastea erabaki du. Bildutako agiriak eta lekukotasunak aztertu bitartean, bere memoriarekin bakarka geratu da. Memoria historikoa bere historiaren memoria bilakatuko da. Norberaren oroimena ere jazarle iruzurgilea delako.

## **Aurreko edizioetako irabazleak**

- (1997) Epaltza, Aingeru. *Tigre ebizan*, Elkarlanean.
- (1998) Juaristi, Felipe. *Galderen geografia*, Alberdania.
- (1999) Lertxundi, Anjel. *Argizariaren egunak*, Alberdania.
- (2000) Oñederra, Lourdes. *Eta emakumeari sugeak esan zion*, Erein.
- (2001) Saizarbitora, Ramon. *Gorde nazazu lurpean*, Erein.
- (2002) Borda, Itxaro. *%100 Basque*, Susa.
- (2003) Lizarralde, Pello. *Larrepetit*, Erein.
- (2004) Muñoz, Jokin. *Bizia lo*, Alberdania.
- (2005) Cano, Harkaitz. *Belarraren aboa*, Alberdania.
- (2006) Zaldua, Iban. *Etorkizuna*, Alberdania.
- (2007) Montoia, Xabier. *Euskal Hiria sutan*, Elkar.
- (2008) Muñoz, Jokin. *Antzararen bidea*, Alberdania.

- (2009) Lete, Xabier. *Egunsentiaren esku izoztuak*, Pamiela.
- (2010) Etxegoien, Fermin. *Autokarabana*, Pamiela.
- (2011) Apalategi, Ur. *Fikzioaren Iztarrak*, Susa.
- (2012) Cano, Harkaitz. *Twist*, Susa.
- (2013) Saizarbitoria, Ramon. *Martutene*. Erein
- (2014) Atxaga, Bernardo. *Nevadako egunak*. Pamiela
- (2015) Saria ez zen onartu